

# gaz-teak



**Getxo**  
bizi ezazu

Doako alea

371 zb.  
www.getxo.eus

>> 2022ko Urria



## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

- > Gazte Bulegoak sormen eta ekoizpen artistikoa, emantzipazioa eta udal elkarteekiko atxikimendua bultzatuko ditu
- > GetxoExpress urriaren 21etik 23ra ospatuko da Muxikebarrin
- > Gurot galderen lehiaketa abian

## GetxoExpress urriaren 21etik 23ra ospatuko da Muxikebarrin

GetxoExpress filma laburren lehiaketaren VII. edizioa urriaren 21etik 23ra egingo da aurten. Aurrekoetan bezala, zinemaldian parte hartzeko dauden 25 plazak izenematea zabaldu eta ordu gutxitara bete ziren, pasa den irailaren 19an.



Lehiaketa urriaren 21ean, ostiralean, 18:00etan, hasiko da, parte-hartzaileei gaia ematearekin. Une horretatik aurrera 25 taldeek 42 ordu izango dituzte haien ideiak landu, grabatu eta filma laburrak ekoizteko. Ezin izango dira lau minutu baino luzeagoak izan eta antolakuntzak jaialdiaren egunean bertan proposatutako Getxoko kanpoko bi kokaleku agertu beharko dira lanetan.

Filmen proiektzioak eta sarien banaketa urriaren 23an, igandean, izango dira, 18:00etatik aurrera.

Sariei dagokienez, irabazleak 1.000 euro jasoko ditu; 800 euro bigarrenak eta 300 euro publikoaren sariak.

## Gurot galderen lehiaketa abian berriro gazteentzat

Datorren abenduaren 7ra arte zabalik egongo da Gurot galderari buruzko lehiaketa banaka parte hartzeko aukera. Alkarbide, Bizkaiko Lurralde Historikoko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen (Getxokoa barne) Bilguneak martxan jarritako Gurot aplikazioan ([www.gurot.eus](http://www.gurot.eus)) 12 eta 17 urte bitarteko gazteek

har dezakete parte.

Tribial moduko jolasa da, euskaraz. Galderak, Getxoko zein inguruetako eta mundu zabalekoak dira, hurrengo esparruei buruz: gizartea, natura, hizkuntza, artea, kultura, zientzia, kirola eta aisia. Saria patinete elektriko bat izango da.

## BEKAK SARIAK

\* **2022ko Beldur Barik Lehiaketa**, gazteen artean indarkeria matxista eta sexista prebenitzeko jarrerak sustatzeko. Hiru kategoriatan ezarri dira: 12-14 urte, 15-17 urte eta 18-20 urtekoentzat, banaka edo taldean, eta sariak 200 eta 400 euroren artekoak dira. Edozein adierazpen artistiko onartuko da, betiere bideo formatuan eta azpittuluekin aurkezten bada: flashmobak, poemak edo gogoeta-testuak, bideoklipak, argazkiak, fotomuntaiak, fotonobelak, lipdubak, dantza, film laburrak, animazio-proiektuak, performanceak, hiri-interbentzioak... Lanak aurkezteko epea: azaroaren 11ra arte. Argibideak eta izen-emateak: [www.beldurbarik.eus](http://www.beldurbarik.eus), [info@beldurbarik.eus](mailto:info@beldurbarik.eus) eta telefonoa: 946 068 379.

\* **Portugaleteko Hiriko Ipuin-lehiaketa**. 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzat, hiru kategoriatan banatuta. Sariak 150 eta 1.000 euroren artekoak dira. Ipuinak aurkezteko epea: urriaren 17ra arte. Informazio gehiago: [Gazteria@portugalete.org](mailto:Gazteria@portugalete.org)

## Romoko Gaztelekuaren programazioa

### Uria

**Hilak 7, ostirala:** SUKALDARITZA: TARTALETAK  
**Hilak 13, osteguna:** ESKULANA: MALABAREAK  
**Hilak 15, larunbata:** IRTEERA: BOLINTXU  
**Hilak 18, asteartea:** ESKULANA: KALEIDOSKOPIOA  
**Hilak 21, ostirala:** SUKALDARITZA: TXOKOLATEZKO HARRIAK  
**Hilak 22, larunbata:** IRTEERA: SAN MAMES  
**Hilak 26, asteazkena:** EKINTZA: FUTBOLIN  
**Hilak 28, ostirala:** ESKULANA: ARGIONTZIAK  
**Hilak 30, igandea:** EKINTZA: JUST DANCE

GureGune  
gazteleku

## Algortako Gaztelekuaren programazioa

### Uria

**Hilak 7, ostirala:** MASTER CHEF: IRABAKIAK  
**Hilak 15, larunbata:** IRTEERA: LASER GUNEA  
**Hilak 16, igandea:** TXAPELKETA: FUTBOLIN  
**Hilak 20, osteguna:** JOLASA: ZELAI ERREA  
**Hilak 21, ostirala:** MASTERCHEF: HANBURGESA  
**Hilak 22, larunbata:** IRTEERA: ZINEMA  
**Hilak 26, asteazkena:** TXAPELKETA: LETS SING  
**Hilak 28, ostirala:** ESKULANA: HALLOWEEN  
**Hilak 29, larunbata:** EKINTZA: HALLOWEEN EGUNA

GauEgun  
gazteleku



## Gazte Bulegoak sormen eta ekoizpen artistikoa, emantzipazioa eta udal elkarteekiko atxikimendua bultzatuko ditu

Getxoko Gazte Bulegoak zerbitzu berri bat izango du; zerbitzu horren helburua da gaur egun dagoen bulegoaren edukia eta bitartekoak modernizatzea, udalerriko gazteen egungo beharretara egokitzeko. Horrela, Gazte Bulegoak, ohiko jarduerari eustez gain, erabiltzaileei informazioa emateko eta helarazteko modua eguneratu eta hobetu egingo du (sare sozialak, web-orria...).

### Berritasunak

Aisialdiko, gizarte- eta kultura-arloko eta elkartasunarekin lotutako jarduerari hiru programa berri hauek gehitu zaizkie:

- **Artesare:** Ekoizpen artistiko eta kulturalari laguntzeko programa, gazte sortzaileak ezagutarazteko eta elkarren artean harremanetan jartzeko. Erakusketa txikietarako gune bat jarriko da Bulegoan bertan – edo bulegotik kanpo, beharrezkoa balitz –, eta euren proiektua ekintzaileei zuzendutako *Wanted* programarekin (Getxoko gazteek garatutako

proiektuak abian jartzen laguntzeko programa) lotzen saiatuko dira.

- **Gertu:** Udalerriko elkarteei laguntzeko programa. Aholkularitza eskainiko die elkarteetan parte hartu nahi duten gazteei, elkarteak sustatzen dituzten taldeei edo lehendik dauden gazte- eta/edo kultura-elkarteei. Bere helburua da prozesuan eta eraketa-izapideak formalizatzen diren bitartean laguntza ematea, informazioa eskainiz eta diru-laguntzak bilatzeko eta eskatzeko lagunduz, gazteek elkarteetan parte hartzea sustatuz, elkarteei buruzko informazioa zabalduz eta erakundeen arteko topagune gisa baliatuz.

- **Hegan:** Emantzipaziorako laguntza-programa da. Enpleguari, prestakuntzari, etxebizitzari, ekintzailetzari eta arlo horrekin lotutako gainerako eragileei buruzko informazio- eta prestakuntza-jarduerak eskainiko ditu. Funtsean, etxebizitza eskuratzeari buruzko

informazioa, aholkularitza eta baliabide espezializatueta bideratzea eskainiko ditu, baita ikasketa-planak eta enplegurako proiektuak ere. 14 eta 30 urte bitarteko gazteentzako ikastaro eta tailerren zerbitzuak ere jarraitzen du, eta adin horietzat interesgarria izan daitekeen informazioa bilatzeari, tratatzeari eta lantzeari buruzko guztiak ere. (Ikastoki programa eta Infoposta programa).

Gonzalo Ayo Gazteria Zerbitzuko zinegotzi arduradunak positibotzat jo du kontratu berriaren esleipena, eta, horren bidez, esan du, *“beste urrats bat egin dugu Getxoko gazteen emantzipazioari, gazteen elkarte-sareari eta sormen eta ekoizpen artistikoari laguntzeko. Gainera, Udaletik, Gazte Bulegoko erabiltzaileek jasotzen duten arreta eta zerbitzua hobetu eta modernizatu nahi dugu, uste baitugu oso garrantzitsua dela herritarrengandik hurbilen dagoen erakundetik komunikatzeko modu berrietara prestatuta eta eguneratuta egotea, zerbitzu eraginkor eta hurbila eskaini ahal izateko”*.



## #WantedGetxo 2022 tailerra

20 bat pertsonak parte hartu zuten 18 eta 30 urte bitarteko gazteen proiektuen aldeko *Wanted* programaren deialdi guztietan egiten den tailerrean. Horretan zazpi proiektu orientazio eta aholkularitza profesionalaren ibilbidea egin zuten. Proiektuen gaiak anitzak izan ziren, hala nola artea, hiri-kultura, dantza, hezkuntza, literatura eta jakintzaren beste adar batzuk, edo ikus-entzunezkoen mundua. Tailerraren helburua da parte-hartzaile guztiak gainerako proiektuak ezagutzea eta haien artean elkar ezagutzea, eta proiektu guztiak ekarpenak eta aholkuak jasotzea,

bai gainerako parte-hartzaileen aldetik, bai sektore bakoitzeko profesionalen aldetik (ekitaldien eta erakusketen antolaketa, artea, diseinu grafikoa, psikologia eta ekintzailetza). Horiek ere bertaratu ziren, Gazteria eta Ekonomia Sustapen arloetako udal-langileekin eta zinegotziekin batera. Saioaren ostean, ekintzaileek “energia eta ideia berriak” eraman zituztela esan zuten. *Wanted* programak 2009. urteaz geroztik gazte-proiektuak babesten ditu, finantzaketa, aholkularitza tekniko eta orientazio faltagatik errealitate bihurtzeko zailtasunak dituztenak.